

ERREKLAMAZIOAK KUDEATZEKO PROZEDURA

Erreklamazio-orrian eskabide hauek egin ahal izango dira:

1.- Azterketa berraztertzea eta emaitza berrikustea

Aztertzailerek berraztertu egingo dute azterketa eta egindako berrazterketaren berri idatziz jakinaraziko zaio interesatuari.

Erreklamazio guztiak aztertu eta erabaki ondoren behin-betiko emaitzak IVAPeko web orrian eta buletinean argitaratuko dira.

2.- Azterketa ikustea

Hala eskatuz gero, azterketariak aukera izango du idatzizko azterketa ikusteko eta/edo ahozkoa entzuteko.

Honela bideratuko da azterketak ikustea:

-Azterketak IVAPek Lakuan daukan egoitzan ikusi/entzungo dira maiatzaren 20an, IVAPek zehaztuko duen orduan.

-Azterketa ikusi/entzuteko denbora hamabost minutukoa izango da.

-Azterketa ikustea/entzutea eskatu duenari ez zaio bere azterketari buruzko azalpenik emango.

-Azterketak ikusteko/entzuteko eguna eta txandak IVAPen web orriaren bidez jakinaraziko dira.

Eskabidea IVAPeko web orrian edo apirilaren 25eko EHAaren buletinean dagoen erreklamazio-orrian egin behar da epe barruan eta honako helbidera bidali:

IVAP
Euskalduntze Zerbitzua
Donostia-San Sebastián kalea
01010 Vitoria-Gasteiz